

Erredakzioa | DONOSTIA

Blair ikuskatzaileei epea luzatzearen alde agertu da

Colin Powellek iragarri du gerra aste batzuen buruan has daitekeela

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko kide gehienek ikuskatzaileei denbora gehiago eskaintzearen alde agertu zuten atzo. Lehendik gerra atzeratzearen alde zeudenek artean modu berean jarraitu zuten, Erresuma Batuko eta AEBetako agintariak ere aste batzuk gehiago itxaroteko prest agertu ziren, nahiz eta «Irak desarmatu beharra» dagoela adierazi.

Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroak Iraki denbora gehiago emateak sarraski handiago eragin dezakeela esan zuen atzo, Glasgoven (Eskozia) Alderdi Laboristak egin zuen bileran. Hala ere, datorren asteartean besterik erabakitzen ez bada, ikuskatzaileei martxoaren 14a arteko epea emateko prest agertu zen. Bere esanetan, NBE Nazio Batuek ez dute zalantzarik egin behar Irakek dituen suntsipen handiko armak desagerrarazteko garaian. «Iraken laguntza zalantzan jartzeko modukoa da, ez ordea, dituen armak», gaineratu zuen lehen ministroak.

Atzo bestalde, AEBetako iturriek adierazi zuten, hegazkin estatubatuarrek Irak hegoaldean misilak gordetzeko erabiltzen ziren bi gune bonbardatu zituzten, Basora hiritik gertu.



AMR NABIL / AP
Liga Arabiarreko idazkari nagusi Amr Moussa, eskuinean, Najji Sabri Irakeko Atzerri ministroarekin.

Suntsipen handiko armarik ez

Ikuskatzaileek azken hiru hilabeteetan egindako azterketetan ez zutela suntsipen handiko armarik aurkitu esan zuen herenegun Hans Blix ikuskatzaileen buruak NBEko Segurtasun Kontseiluan. Adierazpen horiek entzun ostean, Alemania, Frantzia, Txina eta Errusia euren jarrerari eutsi eta ikuskatzaileei denbora gehiago ematearen alde agertu ziren. Herenegungo bilkuran AEBetako eta Erresuma Batuko ordezkariak izan ziren gerraren aldeko jarrera erakutsi zuten bakarrenetarikoa, Espainiarekin batera.

Colin Powell AEBetako Estatu idazkariak, bere aldetik, Iraken aurkako eraso «aste ba-

tzuetako kontua» dela esan zuen herenegun, eta Segurtasun Kontseiluko kide batzuek 1441 ebazpena ez dutela bete nahi salatu zuen. Bestalde, Bagddek ikuskatzaileen lana manipulatu egiten duela, eta, beraz, ez dela sinesgarria ere nabarmendu zuen AEBetako Estatu idazkariak.

Alderantzizko jarrera izan zuen Frantziako Atzerri ministro Dominique de Villepin. «Goizegi da oraindik erasotzeko, hori egin aurretik beste bide guztiak agortu behar ditugu», esan zuen De Villepin.

Kremlina ere Irakeko auziari beste irtenbide bat ematearen alde agertu zen atzo. Igor Ivanov Errusiako diplomazia bu-

DOMINIQUE DE VILLEPIN

Frantziako Atzerri ministroa

«Goizegi da oraindik erasotzeko, hori egin aurretik beste bide guztiak agortu behar ditugu»

ruaren esanetan, NBEk ikuskatzaileei denbora gehiago ematea erabaki du, eta, beraz, hori ikusi artean ez dago Iraki erasotzeko inolako aitzakiarik.

Orain arte, ikuskatzaileen txostenek ez dute inolako erre-akziorik eragin Iraken. Atzo, ordea, Bagdadeko Legebiltzarre-

ko bi diputatu gustura agertu ziren Hans Blix eta Mohamed el Baradei NBEko ikuskatzaile taldeetako buruek aurkeztutako datuekin. Mohamed Muthafar Al Adahami diputatuaren arabera, txostenak Irakek esandakoa baieztatu besterik ez du egin; ez dagoela suntsipen handiko armarik, alegia.

Roger Etxegarai Vatikanoren ordezkaria Saddam Husseinek bildu zen atzo, eta bilaren ostean adierazi zuenez, Irak normaltasunera itzul dadin ahalegina egin behar luke nazioarteak. Etxegarai joan den asteartean iritsi zen Bagdadera, hango ordezkariekin bildu eta gerra saihestu ahal izateko konpromiso bat lortu nahian.

NATO

Astearterako akordioa lortzea espero dute

NATOk kideek Turkia Iraken balizko eraso batetik defendatzeko segurtasun neurriak hartzearen inguruko erabakia bihar edo etzi espero dute kideek. Aldeko ebazpena onartuko balitz, erakundea osatzen duten 19 kideek bat egingo lukete Turkiaren segurtasuna bermatzeko. Bestalde, iturri ofizialen arabera, Aliantza Atlantikoa osatzen duten 18 herrialdeek Aliantzaren Defentsa Antolaketarako Batzordearen mugimenduak denon adostasunez erabakiko dituzte. Frantziak, Belgikak eta Alemaniak duela hilabete inguru adierazi zuten NATO gerran sartzearen aurkako jarrera. Euren usteetan, Aliantzako kideak Turkia defendatzeko segurtasun indarrak bidaliko balituzte, AEBen gerra politikarekin bat egingo lukete. Proiektuaren arabera, NATOk eraso-erakunde aurre egiteko materiala bidaliko luke.

Tarek Aziz Irakeko lehen ministroordea bestalde, Italiako Asis hirian izan zen atzo. Bertan, George Bush AEBetako presidentearekin bildu eta Irakeko auzian duten jarrerari buruz hitz egitea gustatuko litzaikeela esan zuen. Vatikanon eskainitako hitzaldian bestalde, Bagdad NBEko ikuskatzaileei laguntzeko prest dagoela nabarmendu zuen eta Washingtonen Irakeko ordezkariekin hitz egin nahi ez izana ere salatu zuen. Horrez gain, NBEko kideek AEBekin bat ez egitea eskertu eta Espainiari zein Italiari Alemania eta Frantzia bezalako herrialdeei jarraitzeko eskatu zien. «Bushi kasu egitea hanka sartzea da», gaineratu zuen. Segurtasun Kontseilua datorren asteartean bilduko da berriro.

Azizen lehen asmoa datorren asteartea arte Erroman geratzea zen arren, NBEko idazkari nagusiarekin hitz egin ahal izateko, atzo jakinarazi zuenez, gaur itzuliko da Bagdadera.

LABURRAN

GIZA LAGUNTZA

Irakiarrei nola lagundu erabakitzeko bilera antolatu dute Suitzan

Genevan atzo eta gaur irakiarrei nola lagundu erabakitzeko bilera antolatu dute giza laguntzarako elkarteek, tartean NBEko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak. AEBek ez dute bileran parte hartuko.

DESARMEA

Irakek batzordeko buruzagi izateari uko egin dio

NBEko prentsa bulegoak atzo jakinarazi

zuen Bagdaden erabakia. Saddam Husseinen gobernuak ez du hartuko Genevako Desarmaren Foroko presidentetza. Irakek Indonesia ordezkatu behar zuen datoren martxoaren 17an, 66 herrialdek osatzen duten erakundean.

TURKIA

Washingtonen diru laguntza emango dio Ankarari

Estatu Batuetako Gobernuak eta Turkiako ordezkariak akordio batera iritsiz gero, Bushen gobernuak 20 milioi dolarreko diru laguntza emango lioke Ankarari.

Laguntza horri esker, honako hau da Washingtonen daukan helburua: Irakeko gerra hastean, Ankararen laguntza ere izatea.

IKUSKATZAILEAK

Ikuskatzaileen lana luzatzeko eskatu du arduradun ohiak

Rolf Ekeus Blixen aurretik, 1997 arte, NBEko ikuskatzaileen buruzagia izan zenak Iraken egiten ari diren azterketak bi urtez luzatzea eskatu du. Bere esanetan, hobe da denbora luzean itxarotzea gerra hastea baino.

EHUko Informatika Fakultateak

Irakasle-ordezko lanpostu bat betetzeko dei egiten du.

Aurkezteko epea otsailaren 19 arte Informazio gehiago:

943 01 50 83 / 50 79 / 80 59